

LIBURUTEGI-XANTAIA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

EMMA: Ez dago ondo, oso gaizki iruditzen zait. Zer nahi duzue, kaxa batzuen atzean geratu zen, ezkutuan, orain ikusi dut. Korrika etorri naiz ekartzera. Eta zuek, esker onez, zigortu egiten nauzue -izan ere... bai, hau zigorra da-Badakit zazpi urte asko direla, baina bidegabea iruditzen zait: jakin izan banu ez nator, begira zer esaten dizudan, bai, eta aurrezten dudan diru hori, zeren... zenbat diru da guztira? Ez kezkatu, nik kalkulatuko dut. Berrogeita hamar zentimo atzerapen egun bakoitzeko, esan duzu, ezta? (*Sakelako telefonoa atera*). Ea, zazpi urte dira... (*Telefonoan tekleatzen du, kalkulagailu moduan*) Hamabi hilabete bider zazpi...: Laurogeita lau hilabete... Hilero, batez beste, hogeita hamar egun... Hori da...: Bi mila bostehun eta hogeitaz egun... Bi mila bostehun eta hogeitaz egun bider berrogeita hamar zentimo egunean... Ordaindu beharrekoa, guztira...: mila berrehun eta hirurogei euro!! Mila berrehun eta hirurogei euro liburu bat itzultzeagatik! Ezta pentsatu ere! Ez kargatu hori nire kontuan, gero! Zer uste duzu! Ezabatu nire helbideratzea oraintxe bertan! Zoratuta zaudete, ala! A ze arau nazkagarria! Ez al zarete konturatzen horrekin jendeak liburuak itzuli nahi ez izatea lortuko duzuela? Pare bat aste atzeratzen zara eta liburu berri bat baino gehiago kostatzen zaizu; hilabete batzuk oharkabetzen zara, eta kreditu bat eska behar duzu. Eta nik... zer egin behar dut nik? Bada, eskerrak, gela berritzea bururatu zaidan, eta liburuak agertu den... Liburutegi batek balio onak sustatu beharko lituzke, eta niri, oraintxe bertan, goragalea ematen ari dit, senik okerrenak esnatzen ari zait, begira zer esaten dizudan. (*Erregutzen*) Barkaidazu, arraioa, erregutzen dizut. Ez etorri arau eta lelokeriekin. Eta zu, zertarako zaude hor, robota zara? Tira, mesedez, barkatu. Entzun, mesedez. Ez didazu barkatzen? Oso ondo. Gauza bat egingo dugu: Tekleatu "Teleamarauna". Maddi Pelot. Eta "Obabakoak", Bernardo Atxagarena. Eta "Gay nauzu", Iñigo Lamacarena. Zer ateratzen zaizu? O, zazpi urte daramatzate kanpoan. Ui, pentsatzen ari naiz, nik ditudala uste dut. Hau amorrua! Seguru jende asko irrikan dagoela liburu horiek irakurtzeko, zer pena. Begira, zerbait proposatzen dizut: Lau liburu berreskuratzea nahi badituzu, isuna barkaidazu; bestela, etxera iritsi bezain laster, liburuetatik orriak kentzen hasiko naiz, banan-banan, hiru liburu horiei. Astiro, raaaas... (*Orrialde baten haustura imitatzen, plazer sadikoarekin*).

Ele txera
Hondoluzak zabaldiaz



LIBURUTEGI-XANTAIA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

OHARRAK: Erraza da entzulea, hasieran, **EMMA**rekin bat egitea, neskak behar bezala jokatu duelako: liburua aurkitu bezain laster liburutegira itzuli du. Arau larri baten erruz, **EMMA**k neurrigabeko zigorra ezarri behar diotela ikusi du. Eta erregu guztiek ez dute ezertarako balio.

Une horretan, **EMMA**ren alde mafiosoak aktibatzen da. Eta liburuzaina beldurtzen du, ikasle gazte batena baino estortsionatzaile profesionali berezkoagoak zaizkien adierazpen eta teknikak erabiliz.

Bakarrizketaren grazia, nola neska gozo batek esaldiak eta teknikak erabiltzen dituen ikustea da (normalean izugarri hartzen dira, pertsonen bizitza arriskuan jartzen dutelako) liburu sinple batzuen bizitza... mehatxatzeko. Oso litekeena da liburuzainari, gainera, gutxi kezkatzea liburuen osotasuna (**EMMA**k isuna ordaindu ahal duen edo ezin duen, oso gutxi kezkatuko dio).

Beraz, emozionalki inplikaturako pertsona baten eta guztiz hotza den beste baten arteko talka ikusten ari gara. Larrituta dagoen herritarraren eta Administrazio Publikoko makina geldoaren arteko ohiko harremana. Bakarrizketa konplizea, barregarria, atsegina izango da, baldin eta **EMMA**k bere arte guztiak erabiltzen baditu mehatxuzko itxura emateko, beldurra zabaltzeko. Hori nekez lor daiteke bere posiziotik.

Ele txera
munduarek zabaltzen

